



ILLUNARARRA baño berandubago, gaberdiya baño lenago, argiyaren tantorik ikusten etzala; bidian zijoan Ganbela, gurdiya farolik gabe, baña illunpetan somatzen zituben ardoteği guziyetan sartu atera bat egiñaz, eta bakoitzian churruta lasai sartubaz.

Etzan lenbiziko aldiz era ortan arkitzen Ganbela, lenago're bazeki-yen gurdiyari ardoteğiyari baño guchiyago begiraturik eta legiaren agindubak baztarreraturik, illunpetan eta berari zegokiyon eran ibiltzen.

Eta lasaitzar aundi ura illunpetan zijoalarik, orruka kantari zijoan ezerengatik ajolik etziola.

Bañan arren kantai kukurruku erantzungo zion ollarra bazan, ta guchiyena uzte zubenian agertu zitzayon aurrez aurre mikeletiaren jantziyarekin.

Orduban ziran larriyak eta estuasunak. Itza ta pitza zeriola Ganbela, besuak gora ta bera zabaldurik, churiya beltza zala ezin adierazirik lana naikua bazeukan.

—Bi peseta multa; zion bitartian mikeletiak apal apal, berotasunaren antzik arpegiyan azaldu gabe.

Berotasun kiskalgarria Ganbela'ri esagutzen zitzayon, ta zerbait esatia gatik, eta isillik ez egotia gatik, erantzun ziyon:

—¿Bi peseta? ¿Zergatik?

—Farola itzaliya damazulako, erantzun ziyon mikeletiak, asarriaren ispirik agertu gabe.

Farola itzaliya. Illun, oso illun egon arren, argi ta garbi ikusten zan Ganbela'ren gurdiyan farol pisturik etzegola.

Izan zitekian farolaren ichurik ere ez izatia, baña pisturik etzegola begiyen aurrian zegon gauza zan.

Eta alare zerbait esan biar, eta zenbat eta ichuragabeko gauzak azaldu orduban ta ots eta deadar aundiaguak atera, ta orduban ta geyago besuak alde guzietara jiraka ibilli aize errotaren besuak ziruditela.

Ala ziyon:

—¿Zer esan dezu? Irugarren kuartilluba eratia egin det eta ¿farola itzaliya dagola?

—Adiskidia, gauzak oker egin dituzu gaur, erantzun zion mikeletiak par irri chiki bat españetara azalduaz, kanpoko farola pistu biarrian barregua sutu dezu: orrengatik ez du argi egiten.

—¿Ez dubela argirik egiten? ¿Zenbat kuartillu eran biar dira bada argi egiteko?

—Ori..... zeorrek jakingo dezu.

—¿Ta zuk ez? Eta geyago jakin gabe ¿gizon baten aurrera zatoz argi ta illun dagola esatera?

Ontatik asi ta eraso ziyon azkenik gabeko ta ichurik etzuten gauzak esaten, eta Diputaziyua emendik eta Gobiernua bestetik, illargiya batetik, izarrak urrengotik; zekizkiyenak eta etzekizkiyenak, iturritik ura erortzen dan bezela Ganbela'ren abotik irten ziran, geruago ta zalaparta biziyauguakin, geruago ta deadar aundiaguakin.

Usteko zuben onla asarretu aziko zubela mikeletia, baña alperrik; mikeletia beti apal apal, potoko esnia baño geldiyago, itz abek bakarrak esaten zituben:

—Zaude isillik nai badezu; ta ekazkitzu bi pesetak, nai badezu ta nai ez badezu.

—Ori, ikusiko degu.

—¿Nola ikusi biar degu farola itzaliya daukazu ta?

—Orire esan, orire esan.

—Bai noski.

—Esan ez dizut bada orain eran detala irugarren kuartillua.

—Gai ortan esan biar nizuna esan dizut.

Ezagutu zuben Ganbela'k etzubela bere karrasi ta deadarrakin ezer aurreratzen, nai ta naiezkua zubela mikeletiaren aginduba betetzia, ta patrikatik diruba arturik esan ziyun:

—Tori bi pesetak, bañan arrayiak pola, ez nazu berriz chibotik kenduko iñon ardorik bada.